



ZUMARRAGAKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN** **ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo udalak eskatuta, betiere hiri antolaketak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hiri antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Era berean, balio katalstalen eta merkatuko balioen arteko aldea antzeman da udalerriko hainbat zonatan. Hori horrela, udalerriko zona edota azpizona batzuetan balio eragingarriak berrikusi behar dira.

Udalerriaren hirigintza garapenaren ondorioz, agian kale berriak sortu dira edo lehengo kaleetan atari zenbaki gehiago sortu dira. Hori dela eta, beharrezkoa da haiei dagokien merkataritzako azpizona esleitzea.

Horregatik guztiarengatik, udalerrri honetako ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatuko da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineke Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:



1.- Udalerriko hiri antolaketan aldaketa hau egin da:

- **Zumarragako Hiri Antolaketako Arauen berrikuspena** (Diputatu Kontseiluak behin betiko onartua 2006ko maiatzaren 16an, eta GAOn argitaratua 2006ko maiatzaren 31n).

EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Lurzoru hiritarraren mugaketa eta 101, 111 eta 606 zona katastralaren mugaketa aldatu dira.

I. ERANSKINA

Lurzoru hiritarraren mugaketa plano

II. ERANSKINA

Zona katastralaren plano